

FONTES
LINGVÆ VASCONVM
stvdia et
docvmenta



SEPARATA

Año XLVI • Número 118 • 2014

Aipuaren aipuari tiraka.
Melchor Oiangurenen euskal gramatiken
eta hiztegi hirukoitzaren
bila euskalaritzaren hastapenetan

MIKEL AIZPURU

FONTES

LINGVÆ VASCONVM

stvdia et docvmenta



Hacia una periodización de la fragmentación del euskera occidental <i>Gontzal Aldai</i>	221
Basaburu Txikiko euskararen lekukoak (I) <i>Gorka Lekaroz</i>	247
Batallonaren ordena. Doneztebe, 1840 <i>Juan Jose Zubiri</i>	279
Aipuaren aipuari tiraka. Melchor Oiangurenen euskal gramatiken eta hiztegi hirukoitzaren bila euskalaritzaren hastapenetan <i>Mikel Aizpuru</i>	321
Birformulatzaille laburbiltzaileen balio diskurtsiboen azterketa corpusean oinarrituta <i>M.ª Jesús Aranzabe / José M.ª Arriola</i>	339
Las mujeres de <i>El amigo congelado</i> de Joseba Sarrionandia: la utilización de personajes femeninos para hacer frente a los límites del lenguaje <i>Eider Rodriguez</i>	359
Topónimos alaveses de base antroponímica que tienen <i>huri</i> o <i>villa</i> como formante <i>Patxi Salaberri Zaratiegi</i>	367
Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (eta 9 – Aditzaz zerbait Elkanoko aldaerarekiko erkaketan) <i>Koldo Artola</i>	393

Año XLVI
Número 118
2014

Aipuaren aipuari tiraka. Melchor Oiangurenen euskal gramatiken eta hiztegi hirukoitzaren bila euskalaritzaren hastapenetan

MIKEL AIZPURU*

SARRERA

Ikerkuntzaren bideak, maiz, aurretiaz pentsaezinak dira. Ezagutzen naue-
nak badaki historialaria naizela eta maiz esan dudala euskalduna izan
arren, ez naizela filologoa. Beraz, aldizkari honetan agertzeak azalpen txiki
bat behar du. Azken urteetako nire ikerlari-ibilbideak, hau da, naziotasun au-
zien azterketak, Espainiako kolonia ohietara eraman nau, hango herritarrek
metropoliarekin zuten harremana arakatzera. Horrek, halabeharrez, kolonien
historia ezagutzea eskatzen zuen, eta hara non, nire harridurarako, euskaldun
misiolari bitxi batekin egin nuen topo, Melchor Oianguren izeneko frantzis-
kotarrarekin. Irakurritako lanaren arabera, Oianguren XVIII. mendean bizi
izan zen Filipinetan eta misiolaria izateaz gain gramatikaria ere bazen. Hango
hizkuntzei buruzko liburuak ez ezik, euskarari buruzko hiru azterketa ere
idatzi omen zituen, tartean 1715ean landutako euskal gramatika bat. Azken

* UPV/EHUko irakaslea.

Lan hau Luis Castells katedradunak zuzentzen duen Euskal Unibertsitate Sistemako IT-708-13
Ikerketa-Taldearen barruan egin da, Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministeritzaren El pro-
ceso de nacionalización española en el País Vasco contemporáneo (1808-1980): giro local y conflicto
nacional (HAR2011-30399) ikerketaren babespean. Nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiet lana zu-
zendu duten bi ebaluatzaile anonimoei nire idatzia hobetzen laguntzeagatik.

datu horrek piztu zituen nire harridura eta jakin-nahia. Nire ezagutza eska-sean, Larramendiren gramatika (1729) baino zaharragoa zen; gainera, gero jakin dudanez, aurretik Pierre Urtek garai bertsuan idatzitakoa baino ez da heldu gureganaino (Zulaika, 2012).

Eskura nuen Villasanteren *Historia de la literatura vasca* hartu eta datuak berretsi nituen (1979: 96-97). Oiangurennek *Arte de la lengua vascongada*, *Cantabrisimo elucidado* eta *Diccionario trilingüe Tagalo-Castellano-Cántabro* lanak atondu zituen. Are gehiago, Euskaltzainburuaren arabera, ez ziren argitaratu Oiangurennek idatzitako hiru lanak eta galduta edo behintzat toki ezezagunean zeuden. Villasanteren baieztapena gorabehera, ikerlari modernoaren harrotasuna piztu zitzaidan. Oiangurenen lanak existitzen baziren, historialari batek aurkituko zituen Internet eta dokumentazio-zerbitzu modernoek eskaintzen dituzten baliabideei esker. «Putze ugeri arruen etxien» gogorarazten digu Gotzon Garatek bere atsotitzen artean, eta ez zaio arrazoirik falta.

Baina lanak ezezagunak baldin baziren, nola genuen haien berri? Villasantek bibliografia apur bat eskaintzen zuen bere liburuan, eta hortik hasi nintzen tiraka. Beherago xehetasunez azalduko badut ere, aurreratu dezadan Julio Urkixo izan zela Oianguren *bezpiztu* zuena, Erroman, 1907an, aita Jose Zulaikak emandako informazioari esker. Orduan Urkixok bilaketa bikoitza hasi zuen. Alde batetik, miaketa bibliografikoa, 1908an *RIEV* aldizkarian argitaratu zuena; lanak argigarria izan nahi zuen, baina inprimatze-akatsak tarteko, haren irakurketa azkarrak nahasketarako aukera ere eman zuen. Bestetik, Urkixok Filipinetan lan egin zuten frantziskotarrengana jo zuen. Era horretan, Urkixori esker *RIEV*ek hurrengo urtean Lorenzo Pérez frantziskotarraren lan bat argitaratu zuen, eta haren ondotik noizean behin Oiangureni buruzko lanak plazaratu izan dira (Urrutia, 1917; Omaechevarria, 1949; Bergareche, 1952; Garate, 1972). Azken urteetako euskalaritzaren historiari buruzko lan gehienetan Oianguren aipatu da, ur sagonotan murgildu gabe (Oyharçabal, 1992; Gómez, 1997 eta 2008 eta berriki Zulaika, 2012). Oro har, ez dute Urkixok eta Pérezek esandakoa errepikatu baino egiten, kasuaren arabera, haiek esandakoa argituz (Garate) edo nahastuz (Urrutia). Nire lanak iturri beretik edan du, baina saiatu naiz emari berriak aurkitzen eta Oiangurenen ibilbidearen nondik norakoak hobeto zehazten. Ez dakit emaitzak inor aseko duen, baina gustuko jarduera izan da eta ez da gutxi gaur egun.

OIANGURENEN BIZITZARI ETA LANEI BURUZ DAKIGUNA

Pedro Oianguren Leintz Gatzagan, Gipuzkoako hego-mendebaldean, jaio zen 1688. urtean. Garaiko beste mutil askoren moduan, Elizaren bidea hartu zuen eta frantziskotarren artean aurkitu zuen aterpe. 1705. urtean Valladolideko San Diegoko komentuan, frantziskotarren San Pablo Probintzian, jantzi zuen abitua lehen aldiz eta Melchor de Santa Inés erlijio-izena hartu zuen. Noiz ez badakigu ere, Segoviara joan zen, San Gabrielen komentura, eta bertan, 1715. urtean, Filipinetara misiolari joateko erabakia hartu zuen. Bidaia luzea izan zen eta ohiko ibilbidea egin zuen: Espainiako hegoaldetik Mexikoko Veracruzera itsasontziz; handik oinez Acapulcora eta berriro itsasontziz Manilara. 1717. urtea zen hara heldu zenerako, frantzisko-

tarren San Gregorio Magno de Filipinas probintziara (gaur egungo San Pedro Bautista probintziara).

Goragokoek Kotxintxinako misioetara (egungo Vietnamera) bidali zuten, baina hango herritarrek preso hartu eta handik gutxira Manilara itzularazi zuten. Kartzelako baldintza txarrek gaixotu egin zuten eta Espainiara bueltatzea erabaki zuen. Baina Mexikora heldu zenean, sendatuta ikusi zuen bere burua eta berriz Filipinetara itzultzea pentsatu zuen. 1724. urtea zen, eta beste zortzi egin zituen Asian; lehenik eta behin, Baños Aguas Santas de Doctrinero-ko komentuan eta ondoren Sariaya herrikoan, bertako apaiz eta guardian moduan. 1732an, aldiz, tropikoko eguzkiak ikusmena kaltetuta sorterrira itzultzea erabaki zuen, aurrekoan bezala, Mexikon geldialdia egin ondoren. Luze joan zitzaion sendatzea, baina 1736 inguruan, bere onean berriz ere, Amerikan geratzea erabaki zuen. Bizitzako azkeneko urteak lanean igaro zituen, idazten eta komentuko guardian San Agustín de las Cuevasen, egungo Tlapan hirian, Mexikoko D.F.-n. Han hil zen 1747. urtean. Badirudi ez zuela ekarpen handirik egin Mexikoko urteetan; izan ere, ez zaigu haren izenik agertzen Amaya Garritzek Mexiko euskaldunei buruz egindako liburu mardulean (1999).

Aurreko datuei erreparatuz gero, Oiangurenen bizitza garai hartako erlijioso ugarirena bezalakoa izan zen; alta, desberdintasun esanguratsua zuen, hots, hizkuntzekiko maitasuna eta bere gramatikari eta hiztegi-gile lana. Antza, gazte-gaztetatik erakutsi zuen hizkuntzak ikasteko erraztasuna eta euskara eta gaztelaniaz gain, latina, grekoa eta hebreera ikasi zituen Espainian bertan. Filipinetan tagaloz, txineraz, japonieraz, arameraz eta malaysieraz ere mintzatzeko gai omen zen. Garai hartan, artxipelagoa laborategi oparoa zen hizkuntzalari batentzat, Filipinen inguruko herrialdeen topagunea zirelako irlak merkataritzari esker. Europarrez eta bertako biztanleez gain, txinatarrak, malaysiarrak eta japoniarrak biltzen ziren han, eta komunikatzeko baliabideak bilatu beharra izango zuten.

Errealitate horrek frantziskotar gipuzkoarraren arreta jaso zuen eta, besteak beste, japonierari eta tagaloari buruzko bi liburu argitaratu zituen. Tagaloa lantzeari lehenago ekin bazion ere, japonierari buruzkoa argitaratu zuen lehenik, 1738. urtean, Mexikoko Oficina de José Bernaldo de Hogal inprimategian: *Arte de la lengua Japona dividida en cuatro libros según el arte de Nebrixa...* izenburupean. Lau urte geroago plazaratu zuen *Tagalysmo elucidado y reducido en lo posible a la Latinidad de Nebrixa...*, Oficina de Francisco Javier Sánchez inprimategian, Mexikon hau ere. Lehen lanaren izenburuak ondo asko adierazi zuen liburuaren asmoa, garai hartan «Arte de la lengua» esamoldea sarri erabili zelako bai penintsulan, baita Amerikako eta Filipinetako tokiko hizkuntzei buruzko gramatikak izendatzeko. Hor dugu, esaterako, Larramendiren gramatikaren izenburua: *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*, baita Gonzalo Correasen *Arte de la lengua española castellana* (1625) edo Juan Villarren *Arte de la lengua española* (1641). Espainiako eta Portugalgo erlijio-gizonek, bereziki, horrelako makina bat lan idatzi zuten Jaungoikoaren hitza bertako biztanleen artean zabaltzeko. Lan horiei esker, misiolariak joan behar ziren tokietako hizkuntzaren, kulturaren eta ohituraren berri eduki ahal izaten zuten eta horrek erraztu egiten zien eginbehera. Lanek, oro har, antzeko egitura zuten: Antonio Nebrijaren latinaren

gramatika hartzen zuten oinarritzat eta hiztegi bat eta esamolde ugari biltzen zituzten (erlijio-kontuekin lotutakoak gehienak).

Ez da hau gramatika-lan horien xehetasunak aletzeko tokia, baina irakurleak jakin beza Oianguren tradizio luze eta emankor baten jarraipena izan zela. Azkeneko urte hauetan hainbat ikerlarik nabarmendu dute misiolari-hizkuntzalaritzaren garrantzia linguistika modernoaren sorreran eta garapean (Zwartjes, 2008), nahiz eta haien helburu nagusia hizkuntza arrotzak irakastea izan. Ordura arte latina zen Europan idatzitako gramatika-lanen erreferentzia eta ardatza, baina beste kontinenteetako hizkuntzekin izandako harremanak hausnarketa berriak egitera bultzatu zituen ikerlariak. Filipinetako kasuan, gainera, bertako hizkuntzen aberastasunari beste bi ezaugarri gehitu behar dizkiogu: alde batetik, hizkuntza idatziak izatea (Amerikako gehienak ez bezala) eta bestetik, txinera eta japoniera ere mintzatzea bertan, merkatarien ahotan. Aniztasun horrek hizkuntzalarien hausnarketak bultzatu zituen eta, esan bezala, gaurko egile batzuen ustez, linguistika modernoaren abiapuntuetako bat izan ziren. Kolonietan bertan egon ez bazen ere, Lorenzo Hervás jesulagunak iturri horretatik edan zuen eta honen bitartez Humboldtkek eta Europako hizkuntzalari askok. Hori dela eta, azkeneko urteetan, hainbat azterketaren gaia izan da misiolari-hizkuntzalaritza (González Carrillo, 2010).

Zein izan da Oianguren lanen tokia hor? Iritzi kontrajarriak ditugu. Aita Pérezek (1909) «La labor filológica del Padre Oyanguren es verdaderamente encomiable» esan arren, Aita Omaetxebarria frantziskotarrak (1949) aitortu zuen Oianguren garaikoek ez zutela aintzat hartu haren lana, haren lan egiteko modua oso egokia zela geroago (XX. mendearen erdialdera) aitortu bazen ere.

Tagaloari buruzko lanak ez du arreta handirik jaso. Wenceslao Retanak (1898: 39) honela definitu zuen: «*Obra muy rara y bastante cara [...] pero realmente la única en que el Tagalo se compara con lenguas clásicas europeas de un modo metódico y uniforme*». Trinidad Pardo de Tavera bibliografoak (1903: 296) honela diosku:

El tagalismo lo escribió el autor hacia 1723 en latín, pero no se imprimió: en vista del poco aprecio que habían de su obra se determinó traducirla al castellano lo que hizo en 1739 imprimiéndola luego. [...] Inútil advertir que la alusión que el tagalog tenía con el griego, latín, etc, es una pura ilusión. El motivo que hizo que el autor escribiera esta gramática era el deseo que tenía de hacer un trabajo calcado en el Nebrija, lo cual ha sido causa de que se falseara una vez más todo el carácter de la gramática de una lengua aglutinante.

Berriki, Joaquín Sueirok Oianguren gramatikaren berri eman badu ere (2003: 144), urtebete lehenago, hizkuntzalari nabarmenenen zerrenda egiteko orduan ez zuen aipatu ere egin (2002).

Japonierari buruzkoak, aldiz, zorte hobea izan du, azkeneko urteetan bereziki. Humboldtkek (1826: 4) haren originaltasun falta azpimarratu zuen, nahiz eta egindako ekarpenak eta emandako argipenak aitortu. Manuel Alvarren ustez (1997) Oianguren japonieraren gramatikak baditu meritu batzuk, baina, oro har, mugatuegia da eta hizkuntza latinoen morroi. Norvegiako unibertsitateko ikerlariak (Bae, 2005; Klöter; Zwartjes, 2008 eta

Zwartjes, 2008) izan dira Oiangurenen lana goraiatu dutenak eta berrargitalpena bultzatu dutenak (Oyanguren, 2009 eta 2010). Otto Zwartjes irakaslearen arabera (2008: 417-418), gaurko hizkuntzalariek gutxietsi egin dituzte misiolarien gramatikak eta haien gabeziak azpimarratu dituzte, lanak garaiko testuinguruan kokatu gabe. Are gehiago, Oiangurenek bere anaien helburu pedagogiko-didaktikoa gainditu zuen, gramatika konparatiboa landuz, ezagutzen zituen hizkuntzak erabiliz japonieraren egitura eta ahoskera azaltzeko. Ikuspuntu horretatik, lan originalak eta, neurri batean, berritzaileak izan ziren bi gramatikak; izan ere, eredu klasikoa (latina ardaztat hartzen du) alboratu gabe, eredu analitiko-deskribatzailea eta tipologikoa eraikitzen saiatu zen (era sistematikoan lortu ez arren), eta ahalegin hori berria zen bere garairako. Oiangurenak, gainera, japoniera eta euskara erkatu zituen, biak hizkuntza aglutinatzaileak zirelako (*Subjuntiboak*, Oiangurenen terminologian), eta horretan ere berritzailea izan zen. Meritu horiek aitortu arren, González Carrillo (2010b) zuhurrago eta maiseago azaltzen da.

Arte Cantábrico eta Cantabrisimo elucidado

Oiangurenak badu, kritikak gorabehera, hizkuntzalaritzaren historiara pasatzeko meritu nahiko. Euskalaritzaren historian ere aipatu izan da, baina kasu horretan, lanak ez dira gure eskura heldu, gainera ez dakigu zer dela-eta idatzi zituen ere. XVIII. mendean misiolaritza katolikoak eta tokiko hizkuntzen gramatikagintzak bultzada handia izan zuten, baita hizkuntzalaritza zientifikoak ere. Bi garapen horien uztarketa izan daiteke Oianguren, bate-tik, inprimatutako lanetan didaktismoa gainditzen saiatu zelako eta bestetik, bere euskal lanekin, beharbada, katolikotasuna bere herrian hobeto txertatzea nahi zuelako, euskaldunen berezko hizkuntzaren bitartez. Ezin da baztertu ama-hizkuntzaren ganako maitasunak eraginda idaztea lan horiek, garaiko hizkuntzalari askoren antzera (Gómez; Urgell, 2010), hainbat helbururekin: hizkuntza literarioa sortzea eta normaltzea, erabilera bultzatzea eta hizkuntzaren balioa, garrantzia eta dohainak nabarmentzea. Horrela bakarrik uler daiteke hiztegi hirukoitza egitea; izan ere, erabilgarritasunari begira egin izan balitu gaztelania-tagaloa edo gaztelania-euskara izan beharko lirartekeelako erabilitako bikoteak.

Gainera beste bi elementu ditugu euskararenganako maitasuna edo miresmena azaltzeko. Tagaloari buruzko liburuan nahiz japonierari buruzkoan (bereziki horretan), hainbat aldiz jo zuen bere ama-hizkuntzara elementu konparatiboak ateratzeko eta azaldutakoa hobeto ulertarazteko. Ez zen bate-re arrunta garai hartan horrelako zerbait egitea, euskarari kultura-hizkuntzaren estatusa ukatzen zitzaion garaian, hain zuzen. Baina atxikimendu hori beste toki batean ere ikusten da. Bi liburuetan dugu baieztapen deigarri hau: hizkuntza zen latina eta horren dialektoa gaztelania: «*los Castellanos en su dialecto español, o Castellano*» (1738: 2); «*la lengua Latina, y su dialecto la castellana*» (1738: 52) eta «*Dialecto Castellano*» (1742: 15). Euskara, aldiz, hizkuntza osoa zen, «*nuestra lengua Vascongada*» (1738: 6) izendatzeko termino desberdinak erabili bazituen ere. Japonierari buruzko lanean erabilitako hitzek nabarmen aitortzen zioten hizkuntza izaera euskarari: «*lengua Vascongada*» eta «*de nación Vascongada*» (1738: 4). Behin bakarrik erabili zuen dialekto kontzeptua euskarari buruz hitz egiteko eta kasu horretan pluralean

aritu zen, «*nuestros Dialectos Cantabricos, o vascongados*» (1738: 81). Hala ere, aniztasunarekin batera, euskararen oinarritzko batasuna azaldu zuen: «*como acontece en nuestra lengua Vascongada (con los verbos izan, eguin, y otros generales de dicha lengua) que son entendidos de todos los Cantabros Vascongados*» (1738: 156). Lau urte geroago, aldiz, lausoagoa zen definizioa: «*nuestra lengua Vizcaina*» (1742: 126); «*a nuestra lengua Cantabrica Española*» (1742: 174); «*podian imitar al Cantabro Vascongado*» (1742: 208). Ez dakigu bereizketa hori esanguratsua ote zen, baina bai, behintzat, deigarria.

Oiangurenak berak aipatu zuen japonierari buruzko liburuan euskarari buruzko lan bat idatzi zuela (6. orrialdean): «*nuestra lengua Vascongada, de qua egimus in sua arte*». Baieztapen hori berretsi egin zuen *Tagalismo Elucidado* liburuan (70. orrialdean): «*como lo tenemos probado en el Arte Cantábrico*» eta noiz idatzi zuen ere zehaztu zuen, 1715. urtean, Filipinetara abiatu aurretik, hain zuzen ere. Nahiz eta hainbat egilek lan hori *Arte de la Lengua Vascongada* izendatu, Oiangurenak aipatzen duen izenburu bakarra *Arte Cantábrico* da. Orrialde hartan bertan, *Tagalismo* lanean alegia, beste lan bat ere aipatu zuen, *Cantabrisimo elucidado* izenburukoa. Gure miaketan ostean ez dugu inon aurkitu lan horien kopiarik edo erreferentzia zehatzik eta zalantza ugari ditugu 1724tik aurrerako haien existentziaren inguruan. Ondoko lerroetan gure ibileren berri emango dugu, azken baieztapen horri eutsi ahal izateko.

Lan horien hurrengo erreferentzia Espainiako Historiaren Akademiak 1802an argitaratu zuen *Diccionario geográfico-histórico de España* lanean dugu. Hiztegi horren bigarren tomoaren 151. orrialdean, euskal hizkuntzaren nondik norakoak azaltzeko orduan, hizkuntza bera ikasteko zeuden ga-beziak aipatu zituen Joaquín Traggia egileak, tartean gramatika falta; haren ustez, Larramendirena zen bakarra. Oiangurenaren autoerreferentzia ezagutzen zuen baina zuhur jokatu zuen: «*da a entender que había escrito la gramática de su lengua patria. Ignoramos si este trabajo llegó a ver la luz pública*»¹. Traggia eskolapioen ordenako kidea izan zen gaztetan eta Manilako apezpikuaren mintegian irakasle-lanetan aritu zen 1767 eta 1772 bitartean. Han izango zuen Oiangurenaren lanaren berri, baina, agerian utzi zuenez, ez zuen esku artean izan.

Oianguren, esandako moduan, Asiako ekialdeko hizkuntzen inguruan idatzitako gramatikei esker egin zen ezagun. Ezagutza horren lekuko, Wilhem von Humboldt euskalari famatuak liburuxka bat eskaini zion 1826. urtean *Arte de la lengua japonesa* liburuari. Saiakera horren lehen lerroan Humboldtak Oiangurenaren euskal izaera azpimarratu zuen, «*Biscayen de nation*», baina hori izan zen testu osoan euskaltasunari egindako erreferentzia bakarra. Nola lortu ote zuen Humboldtak Oiangurenaren japonierako gramatika hori?

Anaiaren bitartez ziur aski. Alexander von Humboldt bidaiari eta zientzialari ospetsuak txango luze bat egin zuen Amerikan zehar, eta 1803an Mexikora heldu zen, Acapulcora. Portu hori zen, hain zen, garai hartan Espainiako koroak Filipinetako uharteekin komunikazioa izateko erabiltzen zuen tarteko puntua. Hurrengo urtean, 1804an, Alexander Europara itzuli

¹ XVII. mendean, Jacques Belak eta Dominique Bidegarayek ere idatzi omen zituzten euskal gramatikak eta hiztegiak, baina galdu egin ziren (Gómez & Urgell, 2010: 26-27).

zen eta ez dakigu zehatz noiz baina anaiari eman zion Oiangurenen lana, eta horrekin batera Amerikako hainbat herri-hizkuntzari buruzko gramatika ugari. 1821ean argitaratu zuen Wilhem von Humboldtek euskarari buruzko bere lanik garrantzitsuena (Humboldt, 1879), eta bertan ez da Oiangurenen lanik aipatzen, ezta ikerlari prusiarraren beste lanetan ere. Hainbat euskalarik erabili dute Humboldtek Berlinen utzi zuen agiritegia (Gómez *et al.*, 2007), tartean Azkuek berak (1925), eta inork ez du aipatu Oiangurenen gramatikaren arrastorik. Ezinezkoa da, gure ustez, Alexander von Humboldtek Amerikatik Oiangurenen euskararen inguruko lanen bat ekartzea eta anaiak ez ezagutzea, ez erabiltzea edota ez gordetzea, oharren bat behinik behin. Datu horrek, beraz, lanak existitu ote ziren auzitan jartzen du.

Ez dugu XIX. mendeko lehen erdiko euskalarien lanetan Oiangureni buruzko aipurik aurkitu. Ez Abbadie eta Bonaparteren lanetan, ezta Pierquin de Gembloux-en *Bibliographie Basque* (1858) lanean ere. Julio Urkixoren arabera (1908: 329), Francisque Michel izan zen Oiangurenen gramatikaren berri eman zuen egile bakarra, 1802ko *Diccionario*-a jarraituta. Dena den, erreferentzia ez zen oso zehatza, Urkixoren lanak inprimatzaileen iratxoan ajeak jasan zituen eta bere testua ulergaitza zen pasarte horretan. Bilbotar hizkuntzalariak 339. orrialdeko 2. oin-oharrean (berez aurreko orrialdeari zegokion 3. oin-oharra izan beharko zukeenean) Michelen lan batetik ateratako aipu hau idatzi zuen: «*La grammaire du P. Oyanguren se trouvait dans la bibliothèque de M. Klaproth: voyez le n° 676 de son catalogue (Proverbes Basques)*». Justo Garateri esker dakigu Michelek 1847an editatutako Arnaut Oihenarten *Proverbes Basques* lanean azaltzen zela Oiangurenen erreferentzia. Michelen arabera (Oihenart, 1847: 28) Oiangurenen idatzia Julius Klaproth orientalista germaniarraren liburutegian omen zegoen. Hala zen, baina ez euskal gramatika, japonierari buruzkoa baino. Klaproth Parisen hil zen 1835. urtean, eta handik lau urtera salgai jarri zen haren liburutegia, katalogo txukun baten bitartez (Clec de Landresse, 1839). Oiangurenen *Arte de la lengua Japona* lanaren eskuizkribua zen katalogoko 676. liburua. Katalogoan zerrendatutako idatzien artean bazeuden euskarari buruzko liburu gutxi batzuk, gehienak egile ezagunenak (Larramendi, 1729; Harriet, 1741); tartean euskal gramatika bat (358. zenbakia) ere bai, sute batek azala erreta utzi ziona, baina Fleury Lécusek idatzitakoa zen (1826an argitaratua).

Arestiko Traggiaren aipuak ez zuen oihartzun handirik izan une hartan, zehaztasun handirik ez zuelako ziur aski, eta ez da harritzekoa hurrengo hamarkadan kaleratutako euskarari eta euskal gaiei buruzko bibliografietan Oiangurenen gramatikarik ez azaltzea. Horrela gertatu zen Vinson-en *Essai d'une bibliographie* (1891) eta urte bereko Sorarrain-en *Catálogo de obras euskaras* lanetan. XX. mende hasieran, Julio Urkixo izan zen, esan bezala, Oianguren berreskuratu zuena, baina hiztegia baino ez zuen aipatu. Lorenzo Pérezek Oiangurenen idatzien artean sartu zituen *Arte Cantábrico* eta *Cantabrisimo elucidado* lanak eta lehena 1715ean idatzi zela gehitu zuen, besteak beste. Harrezkero etorri diren lanek Pérezek esandakoa errepikatu baino ez dute egin, zuzenean edo zeharka.

Oiangurenek berak esandakoaren arabera, 1715. urtean idatzi zuen lana. Horretan oinarririk, bi aukera daude idatzi zuen tokiaren inguruan: Valladolid eta Segovia. Biak daude Salamancatik nahiko hurbil, eta garai hartan (1715 eta 1730 bitartean) Medina del Campo eta Tormes inguruan bizi

izan zen Aita Larramendi (gramatika-irakaslea Salamancan urte batez 1720 aurretik). Beraz, ezin da baztertu elkarren berri izatea. Dena den, Larramendik *El imposible vencido* lanaren hitzaurrean (1729: IV) honako hau baieztatu zuen: «*No he tenido guía, que vaya delante, y me dirija, me ha sido preciso romper el camino*». Ezin jakin zer fidagarritasun duen baieztapen horrek, izan ere andoaindarrak hiztegia egin zuenean, 43. orrialdean «*otros Artes, y sus Authores*» jarraitu zituela aitortu zuen. González Carrillok (2010b: 484), gramatikara mugatuz, antzekotasun batzuk aurkitu ditu Larramendiren gramatikaren eta Oiangurenen lanari buruz zeharka dakigunaren artean: euskararen izaera «subjuntiboa» eta «guizon» adibidearen erabilera. Ez da gauza askorik, dena den.

Oianguren Valladoliden egin zen fraide, San Diegoko komentuan, baina haien etxea desamortizatu ondoren, hainbat erakunderen egoitza izan zen, eta XX. mende hasieran eraitsi egin zuten. Gaztelako hiri horretako inprentari buruzko lanetan (Alcocer, 1926 eta Palomares, 1974) ez da ezer aipatzen Oiangurenen inguruan.

Bigarren aukera Segoviako frantziskotarrekin zegoela idaztea izan liteke, San Gabrielen komentuan. Desamortizazioaren ondorioz apaizetxea itxi egin zen eta 1850. urtean klaretiarrak heldu ziren bertara (Barrio, 1994). Horiek ere ez dute XVIII. mendeko agiririk. Hirian bazen frantziskotarren beste komentu bat ere, San Frantziskorena, hain zuzen. Hori ere desamortizatu egin zuten (Artilleria-akademia jarri zuten bertan) eta Madrileko Archivo Histórico Nacional-ean gordetako agiri apurren artean ez dago eskuizkribu edo inpresoei buruzko aztarnarik. Madrileko Biblioteca Nacional-ak, bestetik, Elizaren makina bat eskuizkribu jaso zituen garai hartan exklausazioak zirela eta. Horietako asko frantziskotarrenak ziren eta Manuel Castrok bildu zituen katalogo potolo batean (1973), baina gure ikerketa-gai diren lanak ez daude jasota bertan.

Segoviako agiritegi publikoek eta Elizakoek ez dute informazio gehiagorik. Bada, gainera, datu esanguratsu bat: Segovia izan zen Espainian inprenta erabiltzen lehen hirietako bat, eta teknologia horren historia ondo miatu du Fermín de los Reyes-ek (1996). Haren azterketaren arabera, Segoviako inprentak gainbehera handia jasan zuen XVIII. mendean. 1718 eta 1776 bitartean lanen bat argitaratu baldin bazen, ez du arrastorik utzi eta 1718 aurretik 41 orritxo, 5 liburu eta 9 liburuxka baino ez ziren argitaratu (Reyes, 1996: 616). Hirian 4 inprenta baino ez ziren egon, ez denak batera, eta harreman estua zuten elizgizonekin. Esan gabe doa, Oiangurenen arrastorik ez zegoen zerrenda horretan. Kontuan izan behar da XVIII. mende hasieran euskal gramatika bat argitaratzea ez zela bat ere gauza erraza izango. Larramendik berea inprimategitik ateratzea lortu bazuen, Gipuzkoako Aldundiaren laguntzari esker izan zela. Euskarazko lanak argitaratzea zaila zen; are zailagoa gramatika edo hiztegia bezalako lan hain tekniko bat. Beraz, litekeena da Oianguren bere gramatika eskuizkribaturik gordetzea, inprimatu gabe.

Oianguren Filipinetara joan zenean ez dakigu eskuizkribua berarekin eraman ote zuen. Lanaren garrantziaz jabetun, hori pentsatzea da zentzuzkoena. Baina, era berean, zentzuzkoa da pentsatzea Kotxintxinan preso hartu zutenean, 1720. urtearen inguruan, berekin zuela eta atxilotu zutenek ez ziotela jaramon handirik egingo ulertzen ez zuten hizkuntzan idatzitako testu bati, eta oso litekeena dela bertan galtzea. Hala ere, Manilan idatzi zuen ta-

galoari buruzko lanean ez du galeraren inguruko aipamenik egiten. Mantendu baldin bazuen Filipinetatik Mexikorako bidea egingo zuen berriro. Ezin jakin zergatik ez zuen argitaratu, galdu egin zuelako edo beste lehentasun batzuek alde batera utzi zutelako. Kontuan izan behar da izan zuela inprimatzeko aukera, Filipinetako frantziskotarrek garai hartan inprenta bat baitzuten (Medina, 1896, XXVII).

Hiztegi Hirukoitza

Gramatiken kasuan ez bezala, Oiangurenen hiztegiaren berri zehatzagoa dugu eta baieztatu daiteke izaera fisikoa izan zuela. Sarri *Tagalysmo* lanean bihurtzen da haren erreferentzia, baina ez dago horrelakorik. Félix de Huertaren liburua (1865) izan da orain arte lehen aipamen zehatza. Huerta frantziskotarrak ordenakideek Filipinetan egindako lana goraiatu zuenean, Oiangurenen hiru lan ekarri zituen gogora (1865: 538-539): aipaturako bi *Arte*-ak (japonierari eta tagaloari buruzkoak) eta *Diccionario Trilingüe, Tagalog-Castellano-Cántabro*. Baina bi aurrenekoen data eta inprenta zehaztu bazituen ere, hiztegiaren kasuan izenburua baino ez zuen idatzi.

Gure azterketak, berriz, hiztegiaren aipu zaharrago bat aurkitu du eta datu garrantzitsua dela uste dugu. 1732. urtean, Juan de San Antonio frantziskotarrak bere *Bibliotheca Universa Franciscana* lanaren bigarren bolumena argitaratu zuen Madrilén. Latinez idatzitako lan mardul horrek (1.700 orri guztira) ordura arte frantziskotarrek idatzitako guztia bildu nahi zuen eta irizpide bitxia (gaur egunetik begiratuta behintzat) aukeratu zuen: egileak abizenetik sailkatu ordez, erlijio-izenaren arabera banatu zituen. Eta hor, 360. orrialdean, aurkitu dugu gure MELCHIOR A S. AGNETE (Melchor de Santa Inés), abizenik gabe:

**MELCHIOR A S. AGNETE , His-
panus , Cantabricus , professione emissus
in Discalceata S. Pauli Provinciæ , ac ibi-
dem litteris instructus , & Provinciæ S.
Gregorij in Philippinis Insulis sociatus,
compofuit:**

***Dictionarium Trilinguæ Tagalicum, His-
panicum , ac Cantabricum. Adhuc inedi-
tum extabat in 4. anno 1729. teste Fr. Jo-
sepho de Sancta Ella, Discalceatæ Provin-
ciæ S. Gregorij Pro-Ministro.***

Jatorria azaldu ondoren, *hispanus* eta *cantabricus* (espainola eta euskalduna, izaera bikoitza nabarmenduz), Oiangurenen ibilbidea zehaztu zuen eta, ustez idatzita, baina argitaratu gabe zegoen tagaloari buruzko gramatika bazterrean utzita, lan bakarra aitortu zion: Hiztegi hirukoitza, tagaloa-gaztelania-euskara. Beraz, 1729. urtean hiztegia amaituta zegoen, baina argitaratu gabe, José de Santa Ella probintzialak aitortu zionez. Datu hauek zuzenak baldin badira, eta ez daukagu zertan zalantzarik eduki, 1715eko *Arte*

Cantábrico ez ezik, hiztegia ere 1730 baino lehen amaituta zegoen. Espainiako *Diccionario de Autoridades* 1726 eta 1739 bitartean argitaratu zen, eta nekez izan zitekeen Oiangurenentzat erreferentzia, Larramendirentzat izan zen moduan (Urgell, 1998). Datu horren arabera, hiztegia gramatika baino berriagoa litzateke, eta horretan bat egin zuen garaiko egile askorekin, lexikografia-lanak ideia linguistikoen ondorio zirelako.

Irakurleak buruan izango du aita Manuel Larramendik une bertsuan, 1729an, *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Vascongada* argitaratu zuela eta 1745ean *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence, Latín*. Garaiko garraioen moteltasuna ezagutu arren, ezin da baztertu harremanen bat egon zenik bi elizgizonen artean. Edozein modutan, ikusi dugunez, Oiangurenek eta Larramendik harremana izan bazuten, errazagoa da pentsatzea harreman hori Gaztelan gertatu zela, aita Melchor 1715ean Filipinetara joan aurretik. Hipotesi horren aurka, kontuan izan behar dugu Larramendi berak ez zuela aintzat hartu eta Mitxelenak Larramendiren hiztegiaren eranskinetako iturriak aztertu zituenean (1970) ez zuela iradoki Oiangurenen moduko bizkaieraz egiten zuen erreferentzia sortzaileraren bat egon zitekeenik haien artean.

Hego Euskal Herrian 1871. urtera arte itxaron behar da Oiangurenen lanaren berri izateko. Espainiak Seiurteko Demokratikoa bizi zuen, Isabel II.a bertatik kanporatu zuten eta agintari berriek Elizaren eta Estatuaren arteko harreman estua askatu nahi zuten. Bide horretan, Filipinetan ordena erlijio-soek zuten nagusitasuna eta ia erabateko monopolioa auzitan jarri zituzten garai hartako gobernuak onartutako hainbat dekretuk. Erabaki horiei aurre egiteko Enrique del Castillo y Alba idazle eta kazetariak artikulu luze bat kaleratu zuen (1871) ordena erlijiosoek Filipinetako irakaskuntzaren eta jakin-duriaren alde egindako lanak azalduz, eta bertan aipatzen ditu Oianguren frantziskotarra eta haren hiztegia. Idazlan horren berri izan zuen Nicolás Soraluce historialari gipuzkoarrak eta urte horretan bertan argitaratutako liburuxka batean jaso zuen beste biografia batzuekin batera. Castillok esandakoari zera gehitu zion Soralucek: Oiangurenen (Aranguren dio testuak) bataio izena Pedro Eugenio zela eta haren izena «*era hasta ahora desconocido en ella (Gipuzkoan) y aún en su pueblo natal*». Antzeko aipuak egin zituzten Gómez Platerok (1880: 388)² eta Ángel Allende-Salazarrek, *Biblioteca del Bascófilo* (1881) lanean, 504. sarreran. Allende-Salazarrek hiztegia aipatu zuen, baina Soralucerengana jo zuen haren erreferentzia emateko orduan.

Azken bilduma hori argitaratu baino bi urte lehenago Marcellino da Civezza frantziskotar italiarrak, inprimatutako bi gramatikaz gain, hiztegiaren berri eman zuen bere *Saggio di bibliografia geografica storica etnografica sanfrancescana* (1879: 440) lanean, ohar garrantzitsu batekin, «*Inedito nell'archivio del nostro convento di Manila nelle filippine*». Civezzaren aipua badaezpada izan daiteke; izan ere, frantziskotar italiarrak hainbat agiri, jatorrizkoak eta kopiak, jaso zituen Manilako komentutik bere bibliografia osatzeko (Sánchez Fuertes, 1994), baina bertara joan gabe (Pratesi, 1950: 263). Are gehiago, José Toribio Medina poligrafo txiletarraren aburuz (1896), Civezzaren datuak kontuz hartu behar ziren, «*pues sus noticias son de segunda mano en lo que respecta a Filipinas*». Ziur aski Civezzaren iturria Juan de San Antonoren *Bibliotheca Universa Franciscana* bera izan zen.

² Omaecheverriak aipatua (1949).

Jakina denez, garai hartan Filipinak Espainiaren menpe zeuden, baina egoera horrek ez zuen luzaro iraun. 1898. urtean, gerra laburraren ostean, han bizi ziren espainiar frantziskotar asko penintsulara itzuli ziren eta haiekin batera euren agiriak (Sánchez Fuertes, 1994). Frantziskotarrei buruzko dokumentazio historikoa bi zatitan banatuta zegoen. Alde batetik, Espainian sortutakoa San Gregorio probintziako frantziskotarren Curia probintzian gordeta zegoen, Madrileko San Francisco el Grande komentuan, baina 1936ko gerra zibilaren hasieran komentu hura kartzela bilakatu zen eta galdu egin ziren agiriak. Frantziskotarrek Guadalajara probintziako Pastrana herrian zuten komentura eraman zuten Filipinetatik ekarritakoa. Asiatik itzultako aita Lorenzo Pérez izan zen agiritegiko arduradun berria. Pérezek, hain zuzen, Filipinetan ibilitako frantziskotarren biografiak argitaratzeari ekin zion eta lehenengoan artean Oiangurenena kaleratu zuen, 1908ko *Archivum Franciscanum Historicum* aldizkariaren lehen alean. Julio Urkixok izan zuen haren berri eta *RIE* Ven berrargitaratu zuen artikulua hurrengo urtean. Artikulu horretan, San Gregorio Probintziako agiritegiaren arduradunak ukatu egiten zuen hiztegia Pastranan zegoenik (1909: 23). 1977an agiritegia Madrileran eraman zuten eta izen berria ipini zioten: *Archivo Franciscano Ibero-Oriental* [<http://www.franciscanosdecastilla.org/biblioteca/afio.html>]. Egia da bertara fondo gehiago heldu zirela, bai Filipinetatik, bai eta Espainiako beste komentuetatik ere, baina eskuizkribua ez zen agertu, gaur egungo agiritegiko arduradunak, Aita Cayetano Sánchez Fuertesek, adierazi zidanez.

Beste hiru aukera daude. Lehena, hiztegia Filipinetan geratzea; izan ere, hango frantziskotarrek euren komentuak eta elizak mantendu zituzten, baita agiritegia ere. Zoritzarrez, 1945. urtearen hasieran, Manila borroka gogorren gunea izan zen. Bertan bilduta zeuden japoniarrak gotortu egin ziren Estatu Batuetako armadari aurre egiteko eta horiek hiria bonbardatzea erabaki zuten ahalik eta baja gutxien edukitzeko. Ia erabat suntsitu zuten Manila. Adituen ustez, guda hartan hiririk kaltetuena izan zen, Varsoviaren atzetik. Bertako zazpi katedraletatik sei eraitsi zituzten eta erabat galdutako eraikinen artean frantziskotarren komentua egon zen. Oiangurenen eskuizkribua Filipinetan geratu baldin bazen, nekez aterako zen onik bonbardaketaren ondoren. Ez dut hara egindako galderen erantzunik jaso. Compañía General de Tabacos-ek Bartzelonan zuen biblioteca erosi zuen 1913an Filipinetako gobernuak, eta Manilara eraman zuen, eta hura ere era berean suntsitu zen (Hidalgo, 2000: 682). Ez ditugu Filipinei buruzko bibliografia guztiak erabili (Hidalgo, 2000), baina esku artean izan ditugunak (Retana, 1898; Pardo de Tavera, 1903 eta Vindel, 1912 eta 1917) bat datoz: ez dago Oiangurenen lan horren berririk.

Amerikako edo Espainiako agiritegi edo liburutegiren batean egotea Oiangurenen lana da beste aukera bat. Norabide desberdinetan zuzendu ditugu ikerketak, baina betiere urriak izan dira emaitzak. Mexikon, lau gunetara jo dugu. Lehenik eta behin, hango hiru biblioteca garrantzitsuenetara: Pueblako *Biblioteca Franciscana*-ra, hiri berean 1646. urtean Juan Palafox Mendoza gotzainak sortutako *Biblioteca Palafoxiana*-ra eta Mexikoko *Biblioteca Nacional*-era. Azken horretan *Tagalysmo elucidado* eta *Arte de la lengua japona* lanen ale bana dago eta bigarrean *Arte de la lengua japona* lanaren ale bat. Frantziskotarren jarduna jasotzen duen *Biblioteca Franciscana*-k

ez du Oiangurenen lan bakar bat ere. Mexikoko agiritegi nazionalera ere jo dugu, *Archivo General de la Nación*-era, bertan gorde zituztelako Mexikoko desamortizazioaren ondoren komentu askotako agiri eta liburuak. Azken kasu honetan, zoritxarrez, ez dut inongo erantzunik jaso.

Espainiako kasuan, bada Filipinei buruzko agiritegi garrantzitsu bat Valladoliden, aita agustindarren agiritegia eta liburutegia. Hiri berean, domingotarrek ere badute euren agiritegia. Ez batak, ez bestek ez dute Oiangureni buruzko agiri edo eskuizkriburik. Burgosko La Vid herrian agustinoek badute beste liburutegi bat, eta hor ere bera izan da emaitza. Sevillako *Archivo General de Indias*-era ere jo dugu, bertan gordetzen direlako Filipinei buruzko Espainiako administrazioak XIX. mende erdira arte sortutako agiri gehienak. Artxipelago hartako agiriak ez daude ondo antolatuta eta ezin erantzun biribilik eman, baina ez dirudi bertan aurki daitekeenik Oiangurenen eskuizkriburik.

Bada Sevillan, dena den, aipamen berezia merezi duen bilduma. 1785. urtean Errusiako erreginak, Ekaterina II.ak eskari berezia egin zion Espainiako Carlos III.a erregeari. Erreginak munduko hizkuntzei buruzko ikerketa bat bultzatu nahi zuen eta hitzen zerrenda bat bidali zion Espainiako inperioko hizkuntzetara itzul zezaten. Zerrenda hori Amerikako eta Filipinetako erregeordetzetara igorri zuten, eta hurrengo urteetan, 1792ra arte, erantzunak heldu ziren. Kasu batzuetan, kopiak Errege-jauregian gorde zituzten, Madrilan, eta beste batzuk Sevillan, hain zuzen (Rey, 1968 eta Triana, 1993). Azken hiri horretan jasotako agirietan, zerrendak ez ezik, hizkuntzen gramatikak eta idatzien berri ere bazegoen. Hor dago Oiangurenen *Arte de la lengua japona* lanaren erreferentzia³, baina besterik ez.

Ekaterina II.aren asmoa ez zen erabat gauzatu, baina hainbat lan argitaratu ziren XVIII. mendearen azkeneko urteetan; horien artean garrantzitsuena Peter S. Pallas hizkuntzalari germaniarrak idatzitako *Linguarum totius orbis vocabularia comparativa* (1786-1789) lana izan zen, ondorengo lan askoren ezinbesteko abiapuntua. Bertan mundu guztiko 200 hizkuntza ingururen 285 hitzeko hiztegiak bildu ziren, tartean euskarazkoa. Iván Igartua (2011 eta 2012) irakasleak aztertu du ekarpen hori, eta, bere ustez, itxuraz; euskal lexikoaren jatorri nagusia, nahiz eta zeharka izan, Jean-Baptiste Bullet-en *Mémoires sur la langue celtique* lana izan zen eta honena Larramendiren hiztegi hirukoitzaren eranskina (2012).

Edozein modutan, euskararekin lotutako lanen bilduma osatzea lehenik Floridablanca kondearen ardura izan zen, Errusian zuen diplomatikoak, Pedro Normandek 1785ean erreginarekin nahia adierazi ondoren, egindako zerrendan nabarmendu ziolako «*no se me ha hablado del idioma Bazquense también sé que no le tiene esta (erreginak) nada de él y tal vez se ignora hasta cierto punto la existencia mirando tal vez como un mero dialecto de nuestra lengua materna*»⁴. 1786ko martxoan honela adierazi zion Normanderi espainiar agintariari: «*se procurará se haga con el esmero posible la traducción en Bascuence de las voces escogidas por esa Soberana para el gran proyecto de buscar el verdadero*

³ Archivo General de Indias, Indiferente General, 1342, MP-escritura 36-43. Documentos escogidos 165, pieza 42003.

⁴ Archivo Histórico Nacional, Estado, legajo 6119.

origen y conexión de las lenguas». Ez dakigu benetan gauzatu ote zen itzulpen hori.

Data bertsuan, 1787an, Lorenzo Hervás (1735-1809) jesulagun espainiarak bere *Idea dell'Universo* entziklopediaren xx. tomoan *Vocabolario poliglotta* kaleratu zuen, baina hor ere ez zegoen Oiangurenen arrastorik, bai ordea Larramendirena (Astorgano, 2003). Erromako jesulagunen Gesuko komentuko liburutegian gorde ziren Hervás-en hainbat agiri; beste batzuk, desamortizazioaren ondorioz, Erromako egungo Biblioteka Nazionalean daude. Horien artean ere ez dago Oiangurenen arrastorik.

Amaiera

Historian, eta are gutxiago bibliografia-kontuetan, ez da oso zuzena izaten baieztapen biribilegiak egitea, baina orain artekoa ikusita, nekez pentsa genezake Oiangurenen lanak ager daitezkeenik. Segoviako komentuko gela hotzean edota Filipinetako hezetasun sargorian idatzitako auskalo zenbat orrialde betiko galduko ziren eta haiekin batera gure hizkuntza hobeto eza-gutzeko aukera .

BIBLIOGRAFIA

- ALCOCER MARTÍNEZ, M., 1826, *Catálogo razonado de obras impresas en Valladolid 1481-1800*, Valladolid, Imp. de la Casa Social Católica.
- ALLENDE SALAZAR, Á., 1881, *Biblioteca del bascofilo*, Madrid, Manuel Tello.
- ALVAR, M., 1997, «La gramática del japonés de Melchor Oyanguren de Santa Inés», in M. Alvar (arg.), *Nebrija y estudios sobre la Edad de Oro*, Madrid, CSIC, 39-51.
- ASTORGANO, A., 2003, «Hervás y los apologistas vascoiberistas en 1803», *RIEV*, 48 (1), 347-408.
- AZKUE, R. M., 1925, «Curiosos documentos copiados en la Biblioteca Imperial de Berlín, de los manuscritos de Guillermo Humboldt, a 5 de agosto de 1922», *Euskera*, 4, 60-66.
- BAE, E. M., 2005, *El sistema pronominal en la Gramática del Japonés del franciscano Melchor Aranguren de Santa Inés (siglo XVIII): Tradición y/u originalidad*, Oslo: Universitetet i Oslo.
- BARRIO GOZALO, M., 1994, «Los frailes y monjes en la ciudad de Segovia a finales del Antiguo Régimen (1768-1834)», *Investigaciones históricas: Época moderna y contemporánea*, 14, 87-118.
- BERGARECHE, D. de, 1952, *Apuntes históricos de Salinas de Leniz y del Santuario de la Virgen de Dorleta*, Vitoria, Egaña.
- CASTILLO Y ALBA, E., 1871, «De la instrucción pública en Filipinas», *Altar y trono. Revista Hispano-Americana*, 103, 66-68.
- CASTRO, M. de, 1973, *Manuscritos franciscanos de la Biblioteca Nacional de Madrid*, Madrid, Ministerio de Educación y Ciencia.
- CIVEZZA, M. da, 1879, *Saggio di bibliografia geografica storica etnografica sanfrancescano*, Prato, Ranieri Guast.
- CLEC DE LANDRESSE, E., 1839, *Catalogue des livres imprimés, des manuscrits et des ouvrages chinois, tartares, japonais, etc., composant la bibliothèque de feu M. Klaproth*, Paris, R. Merlin, Libraire.
- DE LOS REYES, F., 1996, «La imprenta en Segovia en el siglo XVIII», *Estudios Segovianos*, 94, 611-636.
- GARATE, J., 1972, «El lingüista leniztar Fray Melchor Oyanguren», *Euskera*, 17, 99-104.
- GARRITZ, A., 1999, *Los vascos en las regiones de México: siglos XIX a XX*, México, Universidad Autónoma.
- GÓMEZ PLATERO, E., 1880, *Catálogo biográfico de los religiosos franciscanos de la Provincia de San Gregorio Magno de Filipinas desde 1577 en que llegaron los primeros a Manila hasta los de nuestros días*, Manila, Imprenta del Real colegio de Santo Tomás.

- GÓMEZ, R., 1997, «Euskalaritzaren historiaren ikerketa-norabideak: zenbait proposamen», *ASJU*, XXXI (2), 393-409.
- 2008, «Euskal gramatikagintza zaharraren historia laburra», in X. Artiagoitia eta J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez*, Leioa, EHU, 329-350.
- ; HURCH, B.; KEREJETA, M. J., 2007, «Materiales vascos del legado de Wilhelm von Humboldt: la relevancia de Astarloa y el Plan de lenguas», *ASJU*, XL (1), 1-28.
- ; URGELL, B., 2010, «Descripción y defensa de la lengua vasca durante los siglos XVI y XVII», in A. M. González Carrillo (arg.), *Post tenebras spero lucem: los estudios gramaticales en la España medieval y renacentista*, Granada, Universidad de Granada, 257-320.
- GONZÁLEZ CARRILLO, A. M., 2008, «El estudio de las lenguas extranjeras en el siglo XVIII. Consideraciones en torno a la obra lingüística de Melchor Oyanguren de Santa Ynés (1688-1747)», in J. Wilk-Racieszka; J. Lyszcyba (arg.), *Encuentros de lingüística, traducción y enseñanza de la lengua española*, Katowice, Uniwersytet Slaski, 104-120.
- 2010, «Más allá del límite conocido: introducción al estudio de la lingüística misionera española», in A. M. González Carrillo (arg.), *Post tenebras spero lucem: los estudios gramaticales en la España medieval y renacentista*, Granada, Universidad de Granada, 477-530.
- 2010b, «Notas sobre la lengua vasca en las gramáticas misioneras de Melchor Oyanguren (1738, 1742)», *ASJU*, XLIV(2), 367-391.
- HIDALGO, P.; MURADAS, F., 2000, «Guía bibliográfica para la historia de las islas Filipinas», *Anuario de Estudios Americanos*, LVII (2), 677-711.
- HUERTA, F., 1865, *Estado geográfico, topográfico, estadístico, histórico-religioso de la santa y apostólica provincia de S. Gregorio Magno, de religiosos menores descalzos de la regular y más estrecha observancia de N.S.P.S. Francisco, en las islas Filipinas : comprende el número de religiosos, conventos, pueblos, situación de estos, años de su fundación, tributos, almas, producciones, industria, cosas y casos especiales de su administración espiritual, en el Archipiélago Filipino, desde su fundación en el año de 1577 hasta el de 1865*, Binondo, Imprenta M. Sánchez y Cia.
- HUMBOLDT, G. de, 1825, «Notice comparative des grammaires japonaises des PP. Rodriguez et Oyanguren», in *Supplément a la grammaire japonaise du P. Rodriguez; ou remarques additionnelles sur quelques points du système grammatical des Japonais, tirées de la Grammaire composée en espagnol par le P. Oyanguren et traduites par M. C. Landresse*, Paris, Librairie orientale de Dondey-Dupré Père et fils, 1-12.
- HUMBOLDT, W., 1879, *Los primitivos habitantes de España: Investigaciones con el auxilio de la lengua vasca*, Madrid, Librería de José Anllo.
- IGARTUA, I., 2011, «Euskal hitzak P.S. Pallasen *Linguarum totius orbis vocabularia comparativa hiztegi imperialean* (S. Petersburg, 1786/87-1789)», in J. Lakarra; J. Gorrochategui; B. Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena katedraren II. Biltzarra*, Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua, 497-528.
- IGARTUA, I., 2012, «Pallas hiztegiaren euskal iturri lexikografikoak», *FLV*, 115, 177-193.
- ITURRIAGA, J., 1992, *Larramendi: Biblioteca del Santuario de Loyola: catálogo e inventario de la biblioteca personal de P. Manuel Larramendi, S.J.*, Bilbao, Universidad de Deusto.
- KLÖTER, H.; ZWARTJES, O., 2008, «Chinese in the Grammars of Tagalog and Japanese of the Franciscan Melchor Oyanguren De Santa Inés», *Histoire, épistémologie, langage: HEL*, 30, (2), 177-198.
- LARRUCEA DE TOVAR, C., 1984, «José Celestinos Mutis (1732-1808) and the Report on American Languages ordered by Charles II of Spain for Catherine the Great of Rusia», *Historiographia Linguistica*, XI (1/2), 213-229.
- MAIARELLI, A., 2006, «L'Archivio storico della provincia di s. Francesco Stimatizzato dei frati minori in Toscana. Inventari degli archivi delle ex province (1290-1946)», *Studi francescani*, CIII LXII p. 117.
- MEDINA, J. T., 1896, *La imprenta en Manila desde sus orígenes hasta 1810*, Santiago de Chile, El autor.
- MICHEL, F., 1857, *Le Pays Basque: sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*, Paris-Londres, Williams & Norgate.
- MICHELENA, L., 1970, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Bilbao, Centro de Estudios Históricos de Vizcaya.

- OIHENART, A., 1847, *Proverbes Basques recueillis par Arnauld Oihenart suivis des poésies basques du même auteur. Seconde Edition, revue, corrigée Augmentée d'une traduction française des poésies et d'un appendice et précédée d'une introduction bibliographique*, Paris, Chez P. Jannet & Chez A. Franck.
- OMAEACHEVARRIA, I., 1949, «Fray Melchor de Oyanguren. un filólogo vascongado. Misionero de Conchinchina, Méjico y Filipinas», *Misiones Franciscanas*, z.g.,3-5.
- OYANGUREN de SANTA INÉS, M. de, 1738, *Arte de la lengua japona*, México, Oficina de José Bernardo de Hoyal.
- 1742, *Tagalysmo elucidado y reducido (en la medida de lo posible) á la Latinidad de Nebrija*, México, Imprenta de Francisco Javier Sánchez.
- 2009, *Arte de la lengua japona (1738): dividido en cuatro libros según el arte de Nebrija, con algunas voces propias de la escritura, y otras de los lenguajes de Ximo, y del Cami, y con algunas perifrases, y figuras. Transcripción y edición preparada por Otto Zwartjes; con un prólogo de Toru Maruyama*, Madrid, Iberoamericana.
- 2010, *Tagalysmo elucidado y reducido en lo posible a la altinidad de Nebrija con su sintaxis, tropos, prosodia, pasiones, &c. y con la alusión, que en su uso y composición tiene con las lengua hebrea, y griega: para alivio de los RR. Padres misioneros Appostolicos, que pasan á aquellas Misiones de Nra. Sta. Fee, Catholica, Apostólica Romana*, Madrid, Agencia Española de Cooperación Internacional.
- OYHARÇABAL, B., 1992, «Les travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729)», *ASJU*, XXXIII (1), 59-73.
- PALLAS, P. S., 2010 [1789], *Linguarum totius orbis vocabularia comparativa : augustissimae cura collecta. Sectionis primae, linguas Europae et Asiae complexae*, Whitefish, Kessinger.
- PALOMARES, J. M., 1974, *Imprenta e impresores en Valladolid en el siglo XVIII*, Valladolid, Universidad de Valladolid.
- PARDO DE TAVERA, T., 1903, *Biblioteca filipina: o sea catálogo razonado de todos los impresos, tanto insulares como extranjeros, relativos a la historia, la etnografía, la lingüística, la botánica, la fauna, la flora, la geología, la hidrografía, la geografía, la legislación, etc., de las islas Filipinas, de Joló y Marianas*, Washington, Government Printing Office.
- PÉREZ BLÁZQUEZ, D., 2013, «Registros de lingüistas y traductores franciscanos en los catálogos del conde de la Viñaza y de Antonio Tovar», in A. Bueno García (arg.), *La labor de traducción de los franciscanos*, Madrid, Editorial Cisneros, 239-261.
- PÉREZ, L., 1908, «Los franciscanos en el Extremo Oriente (Noticias bio-bibliográficas)», *Archivum Franciscanum Historicum*, 1, 241-247.
- 1909, «Los franciscanos en el Extremo Oriente (Noticias bio-bibliográficas)», *RIEV*, 3 (1), 17-23.
- PIERQUIN DE GEMBLoux, C. C., 1858, *Bibliographie Basque: Hommage à son altesse le prince Louis-Lucien Bonaparte*, Paris, Aubry.
- PRATESI, R., 1950, «Il Padre Marcellino da Civezza, O.F.M. (1822-1906). Vita e scritti», *Archivum Franciscanum Historicum*, 43, 242-334.
- REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA, 1802, *Diccionario geográfico-histórico de España. Sección 1. Comprende el reyno de Navarra, señorío de Vizcaya y provincias de Alava y Guipúzcoa*, Madrid, Imprenta de la viuda de don Joaquín Ibarra.
- RETANA, W., 1898, *Catálogo abreviado de la Biblioteca Filipina*, Madrid, Imprenta de la Viuda de M. Minuesa de los Ríos.
- REY, J. de, 1968, «Catalina de Rusia y las lenguas indígenas venezolanas», *SIC, Revista venezolana de orientación*, 306, 286-287.
- SAN ANTONIO, J. de, 1732, *Bibliotheca Universa Franciscana: sive alumnorum trium ordinum S. P. N. Francisci, qui ab Ordine Seraphico condito, usque ad praesentem diem latina sive alia quavis lingua scripto aliquid consignerunt Encyclopaedia... in tres distributa tomos... / ex praescripto... Joannis de Soto... concinnata a R. P. Fr. Ioanne a S. Antonio... ex Discalceata S. Pauli Provincia* Madrid, Typographia Causae V. Matris de Agreda.
- SÁNCHEZ FUERTES, C., 1994, «El Archivo Franciscano Ibero-Oriental: origen, vicisitudes e importancia de sus Fondos Misionales», *Memoria ecclesiae*, 5, 273-297.
- SORALUCE, N. de, 1871, *Más biografías y catálogo de obras vasco-navarras*, Vitoria, s.n.
- SORARRAIN, G., 1891, *Catálogo general cronológico de obras eúskaras*, Barcelona, Imprenta de Luis Tasso.

- SUEIRO JUSTEL, J., 2002, *La enseñanza de idiomas en Filipinas (siglos XVI-XIX)*, A Coruña, Toxosoutos.
- 2003, *Historia de la lingüística española en Filipinas (1580-1898)*, Lugo, Axac.
- TORMO SANZ, L., 1978, «Método de aprendizaje de lenguas empleado por los franciscanos en Japón y Filipinas», *Archivo ibero-americano*, 38, 377-405.
- TRIANA, H., 1993, *Las lenguas indígenas en el ocaso del imperio español*, Bogotá, Instituto Colombiano de Antropología-Cocultura.
- URGELL, B., 1998, «*Hiztegi Hirukoitza eta Diccionario de Autoridades* erkatuaz (I). oinarritzako ezaugarri zenbait», *ASJU*, xxxii (1), 109-163.
- URQUIJO, J. de, 1908, «Diccionario Tagalo-castellano-vasco», *RIEV*, 2, 328-331.
- URRUTIA, E. de, 1917, «Galería biográfica de vascos ilustres. Fray Melchor de Oyanguren», *Euskalerrriaren alde*, 163-164, 518-519.
- VILLASANTE, L., 1979, *Historia de la literatura vasca*, Burgos, Editorial Aranzazu.
- VINDEL, P., 1912, *Biblioteca oriental: comprende 2747 obras relativas a Filipinas, Japón, China y otras partes de Asia y Oceanía con comentarios y 96 reproducciones en Facsimil*, Madrid, Librería de Pedro Vindel.
- 1917, *Biblioteca ultramarina: Manuscritos muchos de ellos originales e inéditos, referentes a América, China, Filipinas, Japón y otros países que se ofrecen en venta*, Madrid, Librería de Pedro Vindel.
- VINSON, J., 1891, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, Paris, J. Maisonneuve.
- ZULAIKA, J. M., 2012, «Breve panorámica de la lexicografía vasca anterior al *Diccionario Trilingüe de Larramendi* (1745)», *Boletín de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística*, 8, 43-72.
- ZWARTJES, O., 2008, «El hebreo en las gramáticas del japonés y el tagalo de Melchor Oyanguren de Santa Inés (1688-1747)», in H.-J. Döhla, R. Muñoz Montero; F. Báez de Aguilar González (arg.), *Lenguas en diálogo. El iberromance y su diversidad lingüística y literaria*, Madrid, Iberoamericana-Vervuet, 393-424.

LABURPENA

Aipuaren aipuari tiraka. Melchor Oiangurenen euskal gramatiken eta hiztegi hirukoitzaren bila euskalaritzaren hastapenetan

Melchor Oianguren frantziskotar gipuzkoarrak hainbat hizkuntza-lan idatzi zituen XVIII. mendearen hasieran, tartean euskarari buruzkoak, baina zoritxarrez azken horiek ez daude inon gordeta. Lan honetan material horren azken bilaketaren berri emango dut eta zein izan diren aztertutako agiritegi, liburutegi, bilduma eta abar zehaztuko dut.

Gako hitzak: Oyanguren; gramatika; hiztegi hirukoitza; euskara; Filipinak.

RESUMEN

En pos de la cita de la cita. En busca de las gramáticas vascas y el diccionario trilingüe de Melchor de Oyanguren en los inicios de la Vascológia

El franciscano guipuzcoano Melchor de Oyanguren escribió varios trabajos lingüísticos a comienzos del siglo XVIII, incluidos varios sobre el euskara, pero estos últimos se han perdido. En este trabajo se da cuenta del último intento de encontrarlos, detallando los archivos, bibliotecas, colecciones, etcétera que se han utilizado en la búsqueda.

Palabras clave: Oyanguren; gramática; diccionario trilingüe; euskara; Filipinas.

ABSTRACT

Pulling the citation of citation. Searching for the Basque grammars and trilingual dictionary of Melchor de Oyanguren in the Early Bascology

The Franciscan of Gipuzkoa Melchor de Oyanguren wrote several linguistic works in early 18th century, including some works about the Basque language, but these have been lost. This article shows the last attempt to find them, detailing the archives, libraries and collections which I have used for this work.

Keywords: Oyanguren; grammar; trilingual dictionary; Basque; Philippines.

Fecha de recepción del original: 24 de junio de 2014.

Fecha de aceptación definitiva: 29 de septiembre de 2014.